

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

IDAZKARITZA NAGUSIA

Foru Gobernu Kontseiluak 2019ko abenduaren 3ko ohiko bilkuran onartutako ebazpen laburpena

— Erabakiak:

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 762/2019 Erabakia, abenduaren 3koa. Onespena ematea XI. legegintzaldiko (2019-2023) kargu publikoen katalogoari, zeina 3. artikuluan jaso baitu foru kargu publikoen jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauak.

Foru Gobernu Kontseiluaren 763/2019 Erabakia, abenduaren 3koa. Onestea Arabako Foru Aldundiaren ordezkaritza berritzea Transferentzien Bitariko Batzordean.

Foru Gobernu Kontseiluaren 764/2019 Erabakia, abenduaren 3koa. Onestea Arabako Foru Aldundiaren iragarki ofizialak eta komunikazio eta publizitate kanpainak diseinatzeko eta haiek komunikabideei jakinarazteko indarrean dagoen kontratatua luzatzea.

ENPLEGU, MERKATARITZA ETATURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 765/2019 Erabakia, abenduaren 3koa. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorreko karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostuen zerrendan hutsak zuzentzeari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 766/2019 Erabakia, abenduaren 3koa. Onestea kontratazio mugagabea sustatzeko 2019rako laguntza deialdiari buruzko ebazpena.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 767/2019 Erabakia, abenduaren 3koa. Onestea, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailak galdeginik, kreditu transferentziako 152/2019 espedientea, 108.563,29 euroko zenbatekoarekin, "Kreditu Orokorra" izeneko partidarako.

LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 768/2019 Erabakia, abenduaren 3koa. Onestea hirugarrenez esleitzea eta ehuneko hogeita hamar handitzea toki erakundeetako kanpo argiteriaren arloko ekintzetarako 2019ko dirulaguntza deialdia, Arabako toki erakundeetako gastu arrunta murriztearren eta karbono dioxidoaren isurketak gutxitzen laguntzearren.

Foru Gobernu Kontseiluaren 769/2019 Erabakia, abenduaren 3koa. Onespena ematea Toberako Administrazio Batzarrari diruz lagundu zaizkion jarduketak gauzatzeko epea luzatzeari. Dirulaguntza horiek Arabako toki erakundeen gastu arrunta murrizteko eta karbono dioxidoko emisioak murrizten laguntzeko kanpo argiteriaren sektorean ekintzak egiteko dira.

GIZARTE POLITIKEN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 770/2019 Erabakia, abenduaren 3koa. Onespena ematea Asparreneko Udalarekin eguneko arretarako landa zentroa kudeatu eta mantentzeko egindako hitzarmenaren luzapena zehazteari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 771/2019 Erabakia, abenduaren 3koa. Onespena ematea Amurrioko Udalarekin izenpetutako lankidetza hitzarmenari gizarte larrialdietarako laguntzak garatzeko.

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 772/2019 Erabakia, abenduaren 3koa. Onestea lankidetza hitzarmenak izenpetzea Baranbioko eta Untza-Apregindanako administrazio batzarrekin Gorbeiako Parke Naturalean, eta Markizko eta Kintakoekin Izkiko Parke Naturalean.